



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEROKO HERRIA

### 2023ko maiatzaren 2ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren 2an, arratseko zortzian, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behar izan duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak** : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xanbto, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENSA Elodie

**Barkatuak zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne.  
**Bilkurako Idazkari zendatua izan da** : CASIRIAIN Elena.

**Deialdiaren eguna** : 2023ko apirilaren 28a  
**Afitxatze eguna** : 2023ko apirilaren 28a

Kide kopurua : 15  
Hor zirenen kopurua : 13  
Balizko boz kopurua : 13  
ALDE : 14  
KONTRA : 0  
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainerako egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEN, 2023ko maiatzaren 2an  
Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegaria bilakatu den akta,  
2023/05/11an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/05/11an.

### 1. ERABAKIA: HERRIKO HILERRIAN, HERRIKO edo UDAL HILOBI BATEN SORTZEA

( 9.1nomenklatura)

Auzapezak orotarazi du ongi lizatekeela udal (herriko) hilerrian udal hilobi batentzako leku bat abxikitzea. Hori esker, oraindik kontzesiorik ez duten familiek beren hildakoa udal hilobi horretan uzten ahaliko dute, kontzesioa hartu eta beren behin betiko hilotza egin arte.

Ekipamendu kolektibo hori molde pribatuan erabiltzeko egina denez, biltegitratze zerga bat ezartzen ahal da, erabilpen denboraren araberako prezio baremo progresiboarekin.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrek,

**ERABAKI DU** - udal hilobi baten egitea, lorategi hilerriko 2. zatitaren 1. lekuan,

- 2023ko ekainaren 1etik goiti udal hilotzian gorpuak behin behinean uzteko zerga baten ezartzea.

**HONELA FINKATU DU:** zergaren zenbatekoa:

- lehen hiru hilabeteetan, gorpu udal hilotzian uririk uzten ahaliko da:  
- laugarren hilabeteetik goiti, familiek 60 euroko zerga ordaindu behar dute.

**ZEHAZTU DU** udal hilotzian gehienez 6 hilabetez utzi daitekeela gorpuak. Epe hori iragan eta, gorpuak kentzeko abisua ukan-eta deus egina ez bada, gorpu terreno amankomunean hobiratuko da, gastuak familiaren gain izanik.